DON MARCELINO LANDA PASQUEL, Secretario de la Junta General del Valle de Roncal,

CERTIFICO: Que el Acta de la sesión extraordinaria celebrada por la Junta General del Valle de Roncal, el día uno de febrero de dos mil diecisiete, dice literalmente como sigue:

"En la villa de Roncal y Casa del Valle, siendo las dieciocho horas del día uno de febrero de dos mil diecisiete, con asistencia del Secretario D. Marcelino Landa y bajo la Presidencia del Sr. Alcalde de la villa de Roncal D. Aitor Garmendia, que concurre representando a esta villa junto con Dña. Arantza Arregi, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

POR UZTÁRROZ: Dña. María Carmen Fayanás y D. Fernando Sola
POR ISABA: D. David Baines
POR URZAINQUI: D. José María Baines
POR GARDE: D. José Javier Echandi y D. José Ángel Ureña
POR BURGUI: Dña. Elena Calvo y D. José Manuel Redrado
POR VIDÁNGOZ: D. Tomás Pasquel

Abierta la sesión por el Sr. Presidente y siguiendo el orden del día, fueron adoptados los siguientes acuerdos:

1º.- <u>DIMISIÓN DEL ALCALDE DE RONCAL COMO PRESIDENTE DE LA JUNTA</u>

Se da lectura al escrito del Sr. Alcalde de la villa de Roncal, dirigido a los miembros de la Junta del Valle de Roncal en el que presenta su dimisión irrevocable en cuanto a las funciones atribuidas de facto a la Presidencia de la Junta.

Seguidamente se da lectura al informe del Letrado-Asesor sobre la situación que se deriva de la dimisión irrevocable que presenta el Alcalde de Roncal, D. Aitor Garmendia, a sus funciones como Presidente de la Junta

MARCELINO LANDA PASQUEL Erronkaribarko Batzorde Nagusiko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Erronkaribarko Batzorde Nagusiak 2017ko otsailaren 1ean egin ezohiko osoko bilkuraren aktak hitzez hitz ondokoa jasotzen duela:

"2017ko otsailaren 1eko 18:00etan, Erronkariko Batzar-etxean, Marcelino Landa idazkaria izanik eta Aitor Garmendia Erronkariko udaleko alkatea batzordeburu dela, bera eta Arantza Arregi Erronkariko ordezkari gisa agertuz, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura egin du. Gainerako herrien izenean ondoko ordezkariak bertaratu dira:

UZTARROZE: Maria Carmen Fayanas eta Fernando Sola
IZABA: David Baines
URZAINKI: Jose Maria Baines
GARDE: Jose Javier Echandi y D. Jose Angel Ureña
BURGI: Elena Calvo eta José Manuel Redrado
BIDANKOZE: Tomas Pasquel

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

1. <u>ERRONKARIKO ALKATEAREN DIMISIOA BATZORDEBURU GISA.</u>

Erronkariko udaleko alkate Aitor Garmendiak Erronkaribarko Batzorde Nagusiko kideei zuzendutako gutuna irakurri da. Horren bidez, batzordeburu karguari de facto atxikitako eginkizunei uko egiten die.

Jarraian, aholkulari-abokatuaren txostena irakurri da, Erronkariko udaleko alkate Aitor Garmendiak batzordeburu karguaren eginkizunei uko eginez aurkeztu

General del Valle de Roncal.

Terminada la lectura del informe entra en la Sala la representación de Urzainqui D. José María Baines.

En el informe de referencia se dice que a día hoy, con el marco jurídico vigente, la condición de Alcalde de Roncal lleva emparejada la condición de Presidente de la Junta y la obligación de ejercer las funciones inherentes al cargo; jurídicamente no es posible disociar ambas cualidades.

El Letrado-Asesor considera que esta Junta General no debe aceptar la dimisión del cargo de Presidente de la Junta formulada por el Alcalde de Roncal si pretende mantener su condición de Alcalde. La aceptación de la dimisión y el nombramiento de otro Presidente abocarían a la total y absoluta inseguridad jurídica en la gestión competencial y económica de la Junta, ya que todas sus actuaciones podrían estar viciadas de nulidad de pleno derecho. Igualmente, y sin perjuicio de las responsabilidades en que pudiera incurrir, la inacción del Presidente conllevaría la paralización e inacción de la Junta y de la Mancomunidad en la prestación de los servicios que en la actualidad gestiona directamente.

Termina diciendo que, sin perjuicio de la oportunidad y conveniencia de iniciar un proceso de actualización de las Ordenanzas, entre tanto tal reforma no se produzca, la única forma en que la Mancomunidad puede funcionar válidamente es con el cumplimiento estricto de las normas de organización y gobierno que se recogen en el texto vigente.

La representación de Isaba hace suyo el informe del Letrado D. José Iruretagoyena en cuanto a que delegue las funciones inherentes a la Presidencia de la Junta en el primer Teniente de Alcalde de Roncal o en la persona que sustituya al Alcalde en los casos de ausencia o enfermedad; delegación que deberá cumplir con los requisitos y exigencias establecidos en el artículo 9 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Las representaciones de Uztárroz, Garde y Vidángoz acuerdan no admitir la

duen dimisio atzeraezinaren ondorioz sortu den egoerari buruzkoa.

Txostena irakurri ondoren, Urzainkiko ordezkari Jose Maria Baines bilkura-aretora sartu da.

Txostenaren arabera, gaur egun indarrean dagoen marko juridikoa aintzat hartuta, Erronkariko alkate izateak batzordeburu izaera eta karguari atxikitako eginkizunak burutzeko betebeharra dakar; juridikoki ezin dira bereizi.

Aholkulari-abokatuaren aburuz, Batzorde Nagusiak ez du onetsi behar Erronkariko udaleko alkateak aurkeztu duen batzordeburu karguaren dimisioa, bera alkate izaten jarraitu nahi badu. Dimisioa onetsi eta beste batzordeburu bat izendatuz gero, ziurtasun juridikorik eza erabatekoa izanen litzateke Batzordearen kudeaketa ekonomiko eta eskumenetakoan, bere jarduketa guztiak zuzenbidean erabat deusez izan litezkeelako. Halaber, izan litzakeen erantzukizunak alde batera utzirik, batzordeburuaren egintzarik ezak Batzordeak eta Mankomunitateak gaur egun zuzenean kudeatzen dituzten zerbitzuak gelditzea ekarriko luke.

Azkenik, aipatzen du Mankomunitateak jarduteko duen modu bakarra gobernurako eta antolamendurako indarrean dituen arauak zorrozki betetzea dela, Ordenantzak eguneratzeko prozesu bat hasteko egokiera alde batera utzirik.

Izabako ordezkariak Jose Iruretagoyena aholkulariaren txostenarekin bat egin du, Batzordeburuaren karguari atxikitako eginkizunak Erronkariko alkateordearen edo alkatea, gaixotasunagatik edo ez egoteagatik, ordezkatzen duen pertsonaren esku uzteari dagokionez; eskuordetze horrek bete beharko dituelarik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 9. artikuluan ezarritako baldintzak eta betebeharrak.

Uztarrozeko, Gardeko eta

dimisión por no abocar a la Junta a la total y absoluta inseguridad jurídica en la gestión competencial y económica.

La representación de Burgui acuerda aceptar la dimisión en consonancia con lo indicado en la carta de renuncia.

La representación de Urzainqui se abstiene

La representación de Roncal se da por enterada.

La Junta, a la vista de las propuestas, acuerda por mayoría, no aceptar la dimisión del cargo de Presidente de la Junta formulada por el Alcalde de Roncal, D. Aitor Garmendia y afrontar, con la mayor celeridad, la modificación de las Ordenanzas para definir las funciones y facultades del Presidente de la Junta, así como su elección.

2º.- CONCESIÓN DEL SERVICIO DE ATENCIÓN A DOMICILIO

Se da cuenta del escrito que presenta Dña. Ciriaca Mainz Begino, en el que solicita la prestación del Servicio de Atención a Domicilio, y la Junta, a la vista del informe socio sanitario, acuerda concederle, como prestación social, el Servicio de Atención a Domicilio demandado, quien deberá abonar por ello las tasas establecidas en la vigente Ordenanza del SAD.

3º.- CAMBIO DE HORARIO EN EL SERVICIO DE LA TAFALLESA

Se ausentan durante diez minutos D. David Baines y D. José Manuel Redrado reintegrándose una vez debatido el asunto.

Se pone en conocimiento de la Junta el escrito presentado por Dña. Julia Pilart, de Isaba, en el que solicita se replantee el acuerdo adoptado en sesión de 24/11/2016 de adelanto del horario del servicio de La Tafallesa, de regreso de Pamplona a Uztárroz de las 19:00 h. a las 17:00 h. al entender que la empresa es la beneficiaria de esta reducción y utilizan a los mayores en su argumentación.

Transmite la frustración que sienten las personas mayores viendo como el

Bidankozeko ordezkariek dimisioa ez onestea erabaki dute, Batzordearen kudeaketa ekonomiko eta eskumenetakoan ziurtasun juridikorik eza erabatekoa ez izateko.

Burgiko ordezkariek dimisioa onestea erabaki dute, karguari uko egiteko aurkeztu duen gutunean adierazitakoarekin bat.

Urzainkiko ordezkaria abstenitu egin da.

Erronkariko ordezkariak jakitun geratu dira.

Proposamenak ikusirik, Batzorde Nagusiak gehiengoz ondoko erabaki hauek hartu ditu: Erronkariko udaleko alkateak aurkeztu duen batzordeburu karguaren dimisioa ez onestea; eta Mankomunitatearen Ordenantzak aldatzeari berehala ekitea Batzordeburuaren eginkizunak, eskumenak eta hautatzeko prozedura zehazteko.

2.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEA

Ciriaca Mainz Beginoren idazkia irakurri da. Horren bidez, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua izatea eskatzen du. Txosten soziosanitarioak ikusirik, Batzordeak Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzeko eskaera onetsi du. Horretarako, eskatzaileak ELZren Ordenantzak ezarritako tasak ordaindu beharko ditu.

3.- LA TAFALLESAREN ZERBITZUAREN ORDUTEGI ALDAKETA.

David Baines eta Jose Manuel Redrado bilkura-aretorik atera dira hamar minutuz, eta berriz sartu dira gaia eztabaidatu ondoren.

Izabako Julia Pilarten idazkiaren berri eman da. Horren bidez, 2016/11/24ko osoko bilkuran La Tafallesa zerbitzuaren ordutegia aldaketa -Iruñetik Uztarrozerako itzulera ordua 19:00etatik 17:00etara aurreratzea-,

razonamiento que argumenta la empresa, es totalmente negativo para las personas mayores ya que los viajes esporádicos, tienen que rentabilizarlos al máximo, siendo generalmente para revisiones médicas y aprovechados para diferentes compras.

La Junta, analizada la propuesta, acuerda que cada uno de los Ayuntamientos recabe información entre el vecindario para poder definir un horario del servicio del autobús de línea beneficioso para los usuarios.

4º.- RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO POR EL AYUNTAMIENTO DE ISABA CONTRA ACUERDO DE FECHA 21/12/2016 REFERIDO AL COBRO DE LAS DEUDAS DE LOS AYUNTAMIENTOS

Se da lectura al Recurso de Reposición interpuesto por D. Jesús Barace, en representación del Ayuntamiento de Isaba contra el acuerdo de esta Junta de fecha 21 de diciembre de 2016, punto 6º.- Propuesta de anulación del acuerdo de 24/11/2016 referido a la morosidad de los Ayuntamientos y de forma de cobro de la misma y en el que solicita, previos los trámites legales oportunos, la estimación del mismo, revocando el acuerdo de 21/12/2016 y confirmando en todo su contenido el acuerdo de 24/11/2016, punto 6º.- Propuesta del Ayuntamiento de Isaba en relación con la morosidad de los Ayuntamientos con esta Junta General.

Se somete a votación la estimación o no del Recurso de reposición interpuesto por el Ayuntamiento de Isaba, dando el resultado siguiente: Uztárroz, Isaba, Urzainqui y Garde votan a favor de la estimación del Recurso; Roncal, Burgui y Vidángoz votan por la desestimación del mismo.

A la vista de la votación se acuerda, por mayoría, estimar el Recurso de Reposición interpuesto por el Ayuntamiento de Isaba, revocando el acuerdo de 21/12/2016 y confirmando en todo su contenido el acuerdo de 24/11/2016, punto 6º.- Propuesta del Ayuntamiento de Isaba en relación con la morosidad de los Ayuntamientos con esta Junta General.

onesteko hartutako erabakia berraztertzeko eskatzen du, bere ustetan enpresa, adinekoen aldeko argudioak erabili arren, onuradun bakarra baita.

Berak agertu nahi du adinekoek frustrazioa sentitzen dutela enpresak ematen dituen arrazoiak beren kalterako direlako; noizean behingo bidaiak izanik, askotan osasun azterketetakoak, horiek ahalik eta hobekien aprobetxatzen dituzte bestelako kontuetarako, esaterako erosketak egiteko.

Proposamena azterturik, Batzorde Nagusiak erabaki du udal bakoitzak herritarren iritziak biltzea autobus zerbitzuaren ordutegia erabiltzaileentzat onuragarria izan dadin.

4.- IZABAKO UDALAK 2016/12/21EKO OSOKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, UDALEN ZORRAK KOBRATZEARI BURUZKOA

Jesus Baracek, Izabako udalaren ordezkari gisa, 2016ko abenduaren 21eko osoko bilkurako 6. puntuan, *"2016/11/24ko erabakia ezesteko proposamena"*, udalen berankortasuna eta kobratzeko moduari buruz hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa irakurri da. Eskatzen du, aldez aurretik beharrezko lege-izapideak egin ondoren, errekurtsoa baiesteko eta 2016/12/21eko erabakia atzera botatzeko, 2014/11/24ko bilkurako 6. puntuan, *"Izabako udalaren proposamena, udalek Erronkaribarko Batzordearekin dituzten zorrei buruzkoa"*, hartutako erabakia bere osotasunean berretsiz.

Izabako udalak jarritako berraztertzeko errekurtsoa baietsi ala ez bozkatu da eta emaitza ondokoa izan da: Uztarroze, Izaba, Urzainki eta Garde errekurtsoa baiestearen alde; Erronkari, Burgi eta Bidankoze, errekurtsoa

El Ayuntamiento de Burgui, quiere hacer constar tras la votación en este asunto, que le parece inadmisible como Ayuntamientos integrantes de esta Junta del Valle de Roncal ven como mejor opción para acabar con el endeudamiento de algunos de los Ayuntamientos que formamos parte de esta Junta, que la misma perdone estas deudas y a su vez se endeude para dejar a todos en las mismas condiciones. Todo esto después de ser conocedores de que existe la posibilidad por parte de la Junta del cobro de esta deuda a través de la Cuenta de Repartimiento que el Gobierno de Navarra tiene para cada Ayuntamiento, siendo así el Ayuntamiento que le corresponde el único en asumir su deuda acumulada con la Junta y no siendo la Junta la entidad perjudicada.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las veinte horas del día señalado al inicio, por el Sr. Presidente se levanta la sesión, redactándose la presente Acta, que leída y hallada conforme, es firmada por todos los asistentes, conmigo el Secretario que certifico."

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a uno de febrero de dos mil diecisiete.

Vº Bº/O.E.
EL PRESIDENTE/BATZORDEBURUA

Fdo./Sin. Aitor Garmendia Eizagirre

baiestearen kontra.

Bozketaren emaitza ikusirik, gehiengoz ondoko erabaki hau hartu da: Izabako udalak jarritako berraztertzeko errekurtsoa baiestea, 2016/12/21eko erabakia atzera botaz eta 2014/11/24ko bilkurako 6. puntuan, *"Izabako udalaren proposamena, udalek Erronkaribarko Batzordearekin dituzten zorrei buruzkoa"*, hartutako erabakia bere osotasunean berretsiz.

Bozketaren ondoren, Burgiko udalak aktan jaso nahi izan du onartezina iruditzen zaiola Erronkaribarko Batzorde Nagusia osatzen duten zenbait udalek zorpetzea garbitzeko aukera hori hobetsi izana, hau da, udalei zorrak barkatuz eta udalak egoera berdinean uzteko Batzorde bera zorpetuz; areago, denak jakitun izanik, Batzordeak udal bakoitzari bere zorrak Nafarroako Gobernuaren banaketa-kontutik kobratu ahal dizkiola, hartara udal bakoitzak zorra bere gain hartuz eta Batzordea kaltetu gabe utziz.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 20:00etan Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik eta neronek, idazkariak, egiaztaturik."

Eta behar den lekuan ager dadin, ontzat emana eta zigilatuta, honako egiaztagiri hau egin eta Erronkaribarko udaletara bidali da iragarki-oholetan jendaurrean jartzeko.

Erronkari, 2017ko otsailak 1.

EL SECRETARIO/IDAZKARIA

Fdo./Sin. Marcelino Landa Pasquel